



sokan

# Gaizka Aseginolaza

Bidaiari eta kirolaria

## «Ramboak barik, pertsona orekatuak bilatzen dituzte Camel Trophyn»

Gaizka Aseginolaza loiuarra Camel Trophy proba ezagunerako hautatu berri dute, 20.000 lagun artean. Bizkaitarra bidaiari amorratua eta kirolaria izan da betidanik, baina azken lau urteotan hasi da bi zaletasunak uztartzen. Aurten Fidji eta Tonga uharteetan izango da Camel Trophy, lurrez baino gehiago itsasoz, 4x4 ibilgailuetan beharrean itsasoko motorrean. Gaizka Aseginolazak Jordi Garriga kataluniarrarekin osatuko du taldea.

Ramon Olasagasti

### • Nola sartu zinen istorio honetan?

Abentura beti maite izan dut. Nik 27 urte ditut orain, eta 17-18 nituela hasi nintzen batera eta bestera bidaiatzen. 18 urterekin Turkiara joan nintzen trenean; Atlas gaindiko Raida egin dut bizikletan; Irlanda pare bat aldiz autostopean; Portugal eta Peru bizikletan... 23 urterekin Argentina, Txile eta Paraguai zeharkatu nituen motxilarekin eta oinez. Betidanik maite izan dut lekua eta jendea ezagutzea. 18 urte nituenetik 23 bete arte motxilarekin bidaiatzen nuen. Azken aldian, berriz, kirola eta abentura nahastu izan ditut.

### • Pixkanaka, gero eta barrurago...

Harik eta egun batean, Interneten nabigatzen nenbela, Campel Trophy 2000 orrian sartu eta aurtengo asmoen berri jakin nuen arte. Hala jakin nuen, lurrez eta 4x4 ibilgailuetan izan beharrean, Fidji eta Tongako itsasoan izango dela proba, itsasoko motorrean. Izena emateko betekizunak osatu eta hantxe bidali nuen, asko pentsatu gabe. Ezuste handia izan zen Penintsulako 60 aukeratuen artean nengoela jakitea.

### • Zein dira partaide batek bildu behar dituen ezaugarriak?

Ez dakit. Mundu guztiak esaten dit ez dudala horrelako proba batean parte har-



«Goazen lekua ametsetakoa da: Polinesia hilabete batean nabigatzen ezagutzea pasada bat da»

tzeko itxurarik. 1,80 metro naiz luze eta 72 kilo pisatzen dut, fin-fina nago. Jendeak betiko Rambo koadratu horiek imajinatzen ditu, baina Camel Trophyn dena ez da fisikoa. Test psikologiko eta ingeleseko froga asko egin dizkigute, ea *ganbara*-tik ondo gauden jakiteko. Egia esan, hautaketan bat baino gehiagok uste zuen *Comando* filma egitera zihoala. Pertsona orekatua bilatzen zuten, beste batekin igaro behar baituzu hilabete oso bat. Baldintza nahitaezkoa ingelesa jakitea da, eta kirol guztietan apur bat moldatzea.

### • Proba fisikoak nolakoak izan ziren?

Denetatik egin behar izan genuen: igeri asko, piragua, mendiko bizikleta, eskalada, eta batez ere orientazio asko. Probak konbinatuak izaten dira. Adibidez, lau orduko epean 10 baliza topatu behar dituzu. Balizetara korrika, bizikletan, piraguan edo igeri joan zaitezke, eta horren arabera, puntu gehiago edo gutxiago lortzen duzu. Lehen balizara piraguan joan zaitezke, gero neoprenoa erantzi gabe bigarrena eta hirugarrena igerian... Esan nahi dudana da, pentsatzeko eta lau ordu horiek egoki antolatze gaitasuna baloratzen dutela batez ere. Probak ez dira *Forrest Gump* filmean bezala hasi korrika eta hiru ordu gelditu gabe eman eta eman aritzeak. Horrez gain, intentsitate handia exijitzen zigten: goizeko 9:00etan hasi eta goizaldeko 01:00ak arte ez ginen gelditzen, GPS edo ingeles ikastaroa zela, piragua edo igeriketa probak zirela, eskalatzen, bizikletan, ez ginen gelditzen eta, jakina, hirugarren egunetik aurrera batzuk lehertu egin ziren. Presiopean zenbat irauten genuen ikusi nahi zuten.

### • Aurtengo Camel Trophyk, itxuraz behintzat, guztiz desberdina ematen du.

Bai eta ez. Desberdina land roverraren ordeztasoko motorra hartuko dugulako (140 zaldiko *Honda Marine* bat), baina abenturaren izaera berdintsua da. Hiru astetan hainbat proba egin behar dituzu: egun batean halako puntutik atera, halako koordenadara iritsi, itsasontzitik jaitsi, bizikleta hartu eta ez dakit nora igo, orientazio baliza hartu eta beste uharte batera jo, han bizikletan beharrean buzeatuz beste proba bat egin... Horrela izango da Camel Trophy aurten, eta orain artekoak ere antzekoak izan dira. Aldatu den bakarra ibilgailua izan da. Hori bai, goazen lekua ametsetakoa da: Polinesia hilabete batean nabigatzen ezagutzea pasada bat da.

### • Laguna, pentsatzen dut hautaprobetan ezagutuko zenuela. Zer moduz berarekin?

Jordi Garriga izena du, kataluniarra da, eta oso ona da itsasoko kontuetan. Belontzietan lehiatzen da, eta uretan ni baino askoz hobeto aritzen da. Uste dut talde ona osatuko dugula, ni bizikletan, mendian eta eskalatzen hobeto moldatu nintzelako. Bihar bertan Ingalaterra aldera abiatuko gara elkarrekin entrenatzera Mantxako Kanalean. Antolakuntzak astebete ordaintzen dio talde bakoitzari entrenatzeko.

### • Horrelako proba batek eta zure kasa egingo dako bidaiek garbi dago ez dutela zerikusirik, baina baten bat aukeratzekotan?

Zaila da. Ni beti neure kasa mugitu izan naiz, eta aurreneko aldia dut horrelako proba batean. Baina orain arte ikusi dudana gatik, ni ere harrituta geratu naiz. Antolakuntza, giza taldea eta gurekiko jarrera primerakoa izan da. Egia esan, gogoan nuen horrelako proba batean parte hartzeke, eta nahi nuke etorkizunean nire bizitza alde horretatik bideratu.